



40 erromesen taldeak zeharkatuko du eskualdea

GAUR ▶ San Adriango tunelaren bideko bigarren jardunaldian, Tolosan harrera egingo die Udalak

HELBURUA ▶ «Barneko euskal bidea suspertzeko» antolatu duten lehen erromesaldian ari dira ▶ 4

ALKIZA ▶

Putreen ustezko erasoak azienda bati

Baserritarrek, kezkatuta ▶ 5

MIKEL OLAZABAL ▶ PILOTARIA

«Oso gogorra izan da, baina ongi sendatu arte ez nuen hasi nahi»

Aresoarra bihar itzuliko da kantxetara, ia 8 hilabetez geldirik egon ondoren ▶ 7

N. URBIZU



GAZTELU ▶

Goikoetxea, Aranalde eta Gabirondo, Sega Txapelketako finalean. ▶ 6

hitza

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA ez da kaleratuko abuztuaren 1etik irailaren 1era, lan taldearen oporrak direla eta.

Gure gomendioa



Unamano
Mikel Soto, Iñaki Soto



Mandabaldaren mintzo mintzo
Joaquín Azkaraga Dorregal



Infancia
Wesley Slack



La posta negra
Luis Miguel Guzmán



ekar

ekar ezagutzen dugulako

JAIK ▶



Bazkaria eta gero, bertsolarien saioa izan zuten Gaztetxean. I. GARCIA

Txirrindularien eta bertsolarien artean

Bidegoiango Eztiola baserriaren aldeko jaialdia, bihar

ESTI EZEIZA - IMANOL GARCIA

Villabonako Santio festetako egitarauaren baitan ekitaldi gutxien dagoen eguna izan zen atzokoa. Horixe baliatzen dute Onddo Gazte Asanbladakoek Gaztetxe Eguna antolatatzeko. Hori, eta rock kontzertua ere egun horretan jartzen delako. Horrela, alde batetik, gazte-

nentzako ekitaldiak prestatu zituzten, egunero bezala. Goizean sokamuturra izan zen eta arratsaldean txirrindularitza proba, Irrintzi elkarteak antolatuta.

Ia 100 hurrek hartu zuten parte txirrindularitza proban. 3 urtetik hasi eta 14 urte bitarteko txirrindulariak lehiatu ziren. Kale Berrian hasi eta haur-

tzaindegiaren aurrean Kale Nagusira aldera egiten zuten, berriro Kale Berrira jo eta bertan amaitzeko. Jende ugari bildu zen errepidearen bi aldeetan, gehienbat gurasoak, txirrindularien ahalegina ikustera.

Bere aldetik, Onddo Gazte Asanbladak egitarau oparora antolatu zuen atzo. Ikuskizun

EGITARAUAK ▶

LARRAUL

ABUZTUAK 3, OSTEGUNA

10:30. Txupinazoa eta Pello Joxepe-ren jaitsiera.
11:00. Meza nagusia.
11:30. Hamaiketako herrikoa.
12:30. Haur jolasak.
18:30. Pala txapelketa.
22:00. Erromeria Etxabe anaiekin.
ABUZTUAK 4, OSTIRALA
11:00. Puzgarriak egun guztian zehar.
12:00. Haurren duatolia.
14:00. Haurrentzat prestatutako bazkaria.
16:30. Txobxongilo emanaldia.
21:00. Gazte afaria.
23:30. Dantzaldia Sial taldearekin.

ABUZTUAK 5, LARUNBATA.

11:00. Eusko pelota txapelketa haurrentzat.
16:00. Mus txapelketa.
18:00. Solano musika eskolako emanaldia.
18:30. Antton Amonarritz Kuiturgunea eraikuntza berriaren erakusketa.
19:00. Sagardo dastaketa.
21:00. Herri afaria Goiz Argi jatebean. Txartelak bertan daude salgai.
23:30. Dantzaldia Basajaun taldearekin. Goizaldera txokolatada.
ABUZTUAK 6, IGANDEA
09:30. Meza nagusia.
11:00. Il. Patata Tortilla txapelketa.
12:00. Txirrindulari igoera (Asteasu-Larraul).
18:00. Herri kirolak.
19:00. Bertso saioa Egaña, Iturriaga, Lujanbio eta Arzallus.
22:30. Erromeria Ansorregi eta Larrañaiga trikitalariekin.

LEITZA

ABUZTUAK 5, LARUNBATA.

Banaketa eguna.
16:00. *Plazaola* aldizkariaren banaketa, ebex-ebex.

17:00. Txirrindulariak industrialdean.

ABUZTUAK 6, IGANDEA.

Umeen Eguna.
08:00. Diana txistulariekin.
10:00. Meza nagusia elizan.
11:30-14:30. Txiki Pesta.
16:30-18.30. Txiki Pesta.
18:30. Aurrera KEko dantzari ttikien saioa, plazan.
20:00-24:00. Trikidantz taldearekin dantzaldia umeentzat, plazan.
ABUZTUAK 10, OSTEGUNA.
Pesta bezpera.
11:00. Koadrilen arteko herri kirol saioa, plazan.
14:30. Koadrilen eta jubilatuen bazkariak.
18:00. Txupinazoa, udaletxetik.
Ondoren. Plazaola aldizkariko azalaren lehiaketako irabazleari sari ematea.

Gero. Incansables txaranga kalejiran, txistulariak, dultzaineroak, erraldoi eta buruhandien konpartsa, herrian barrena.
22:00. Suzko zezena.
00:00. Tximeleta taldea plazan.
00:30. Incansables Txaranga aterako da erronda egitera.
ABUZTUAK 11, OSTIRALA.
Tiburtzio Donearen Eguna.
08:00. Diana txistulariekin.
09:00. Entzierroa eta behiak, plazan.
10:30. Meza nagusia.
12:00. Aurrera KEko dantzarien eskutik, Ezpatadantza plazan.
Ondoren. Afizionatuen arteko pilota partidak, plazan.
13:00. Aurreratik Incansables txaranga aterako da.
18:00. Zezenak plazan.
19:00. Herri kirolak plazan.
19:30. Buruhandiak, Incansables txaranga alaituta.

ABUZTUAK 11, OSTIRALA.

Tiburtzio Donearen Eguna.
08:00. Diana txistulariekin.
09:00. Entzierroa eta behiak, plazan.
10:30. Meza nagusia.
12:00. Aurrera KEko dantzarien eskutik, Ezpatadantza plazan.
Ondoren. Afizionatuen arteko pilota partidak, plazan.
13:00. Aurreratik Incansables txaranga aterako da.
18:00. Zezenak plazan.
19:00. Herri kirolak plazan.
19:30. Buruhandiak, Incansables txaranga alaituta.
22:00. Suzko zezena, ohiko ibilbidean barrena.

00:00. Gaubela taldearekin dantzaldia, plazan.

ABUZTUAK 12, LARUNBATA.

Pesta Bigarrena.
08:00. Diana txistulariekin.
09:00. Entzierroa eta zezenak, plazan.
11:30. Ordiziako erraldoiak.
13:00. Incansables txaranga Aurrera elkartetik aterako da.
18:00. Behiak plazan.
19:00. Aurrera kirol elkarteko dantzarien emanaldia, plazan.
20:00. Buruhandiak eta Incansables txarangaok, Aurrera kirol elkartetik.
22:00. Suzko zezena
00:00. J&K musika taldea plazan.
00:30. Incansables txarangarekin gaueko erronda.
ABUZTUAK 13, IGANDEA.

Pesta Hirugarrena.

08:00. Diana txistulariekin.
09:00. Entzierroa eta behiak, plazan.
11:30. Poxpolo eta Mokolo pailazoak plazan.
13:00. Incansables txaranga Aurreratik aterako da.
18:00. Behiak plazan.
19:00. Arturrelo Di Popolo umore saioa.
19:30. Frontis Enpresaren eskutik pilota partida profesionalak Amazabal pilotalekuan.
20:00. Buruhandiak eta Incansables txaranga Aurreratik aterako da.
22:00. Suzko zezena betiko ibilbidean barrena.
00:00. Izotz taldearen eskutik dantzarako musika, plazan.
00:30. Incansables txaranga aterako da gaueko erronda egitea.
ABUZTUAK 14, ASTELEHENA
Pesta Laugarrena.
08:00. Diana txistulariekin.
09:00. Entzierroa eta behiak.
11:30. Oilasko Paella lehiaketa

karrapen eta Pilota partidak plazan.

ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

Bikote eta ezkonduen Eguna.
08:00. Diana txistulariekin.
09:00. Entzierroa eta zezenak.
12:00. Herri kirolak, plazan.
13:00. Incansables txaranga aterako da Aurrera elkartetik.
18:00. Bikote eta ezkonduen entzierroa eta zezenak plazan.
19:00. Ezkondu eta bikoteen *Ingurubkoa* plazan.
20:00. Buruhandiak eta Incansables, Aurrera elkartetik aterata.
22:00. Suzko zezena betiko ibilbidean barrena.
00:00. *Oro de Mejico* mariatxia plazan.
Ondoren. Festen bukaera; Labetxeko ataritik aterata *Pobredemia*, Incansables txarangaren laguntzaz.

BERASTEGI

ABUZTUAK 9, ASTEAZKENA

18:30. Txupinazoa buruhandi eta musikariekin alaiturik.
Ondoren. Frontenis txapelketako finalak.
21:00. Triki poteoa Urepeleko trikitalariekin alaiturik.
Gero. Herri afaria.
00:30. Tximeleta taldearekin dantzaldia. Goizaldean txokolatada.
ABUZTUAK 10, OSTEGUNA
09:00. Goiz deia.

09:30. Meza San Lorenzo ermitan.

Ondoren. Hamaiketakoa.
11:30. Meza nagusia, San Martin elizan.
12:00. Afizionatuen pilota partidak.
18:00. Herri kirolak erakustaldia.
Jarraian. Herriko gazteen dantza emanaldia.
22:30. Herriko antzerki taldea. *Oporretan, Bonolotoa, Aerobic, Restaurantea, Apustua eta Kupela* antzezlanak.
Ondoren. Imuntzo eta Beloki.
ABUZTUAK 11, OSTIRALA
09:00. Goiz deia, kalekoak etxera eta etxekoak kalera.
11:00etatik 13:30era. Puzgarriak txikieneztat
16:00etatik 18:00etara. Berriz ere puzgarriak.
18:00. Poxpolo eta Mokolo pailazoak.
Ondoren. Futbol partida, Urepele elkarteko zaharrenek gazteinei desafioa.
22:30. Alurr dantza taldea.
Segidan. Burrunda taldearen emanaldia.

ABUZTUAK 12, LARUNBATA
Koadrilen eguna.
09:00. Goiz deia koadrilak mugiarazteko.
11:30. Koadrilen arteko tortilla lehiaketa. Tortillen dastaketa txakolin freskoarekin lagunduz.
14:00. Koadrilen bazkaria.
18:00. Koadrilen arteko jokuak.

Ondoren. Sagardo dastaketa, Maialen eta Ixiar trikitalariekin alaiturik.
00:00. Laiotz taldearekin dantzaldia.
ABUZTUAK 13, IGANDEA
San Lorentzo eguna eta ezkonduena.
09:00. Goiz deia.
11:00. Pilota partidak.
18:00. Benito Ross-en erakustaldia: bizikletan,

ugari egin zituzten eta bazkalteko 40 lagun inguru bildu ziren Gaztetxearen aurrera. Ondo jan eta gero, bertsolarien kontura barre egiteko aukera izan zuten.

Koadrilen Eguna izango da gaurkoa, eta ekitaldi nagusiena eguerdiko bazkaria izango da. Eguraldi ona egiten badu Etxe-Ondon izango da, bestela Txermingo ikastolan. Bazkaria eta gero, Etxabe anaiekin erromeria. Haurrentzat bereziki, eta nahi duten gurasoentzat ere, Potxinen eta Patxinen jaialdia prestatu dute, 12:00etan.

Egunotan Villabonan Santioak ospatzen ari dira, baina bitartean bi eskualdeetako hainbat herrietan abuztuan zehar

izango dituzten festen egitaraueri azken erreparoa ematen ari zaizkie. Datorren hilean festak izango dituzten herri batzuen jaietako egitarauen berri ematen dugu azpian.

Festa egun berezia

Bidegoianen ere izango da festarik bihar. Baina festa berezia izango da, suak hartu zuen Eztiola baserriko kaltetuen aldeko jaialdia izango baita. 19:00etan hasiko dira ekitaldiak. Lehendabizi, herri kirolen txanda izango da. Unai Otaño eta Joseba Otaegi aizkolarien arteko lehia ikusi ahalgo da. Ondoren, Aimar Irigoien eta Urtzi Telleria harri-jasotzaileen artekoa

izango da. Hori eta gero, txingura proba, lokotx biltzea, txingura eta korrika probak ikusteko aukera izango da.

Herri kirolen ondoren bertsolariek hartuko dute lekukoa: Peñagarikano, Loidisaletxe eta Arkaitz Zelaia ariko dira. 21:00etan hasiko da afaria herriko frontoian, soinu-jole eta bertsolariez animatuta. Dagoneko 350 lagunek eman dute izena, baina 400 lagunentzako lekua izango denez, aukera dago oraindik izena emateko. Horretarako 943 68 10 03 telefono zenbakira deitu behar da. Bestalde, diru laguntzarik eman nahi duenak Kutxako ondorengo kontu zenbakia du: 2101 0067 20 0125498733.



Gogoz ekin zieten txirindulariek probari Villabonan. I. GARCIA

mendiko motoan eta motorrarenkin.

Ondoren. Herriko umeen dantzak eta ezkonduen dantza soka izango da.

00:30. Egan taldea bukatzeko.

IKAZTEGIETA

ABUZTUAK 10, OSTEGUNA

10:45. Txupinazoa.

Ondoren. Buruhandiak.

11:15. Meza.

Ondoren. Txakoli dastaketa, herriko plazan.

17:00. Salto ta brinko pailazoak.

18:30. Bizikleta eta motor erakustaldia Benito Ross munduko txapeldunaren eskutik.

Ondoren. Erromeria kalean zehar Kupela taldearen eskutik.

21:00. Herri afaria.

23:30. Kupela taldearekin dantza saioa.

ABUZTUAK 11, OSTIRALA

Kuadrila eta adiñeokoen eguna

12:30. Meza.

12:30. Paella prestaketa.

14:00. Koadrilen bazkaria.

14:00. Adinekoen bazkaria Herrigintza elkartearen.

Ondoren. Mus eta toka txapelketa.

19:00. Jolas parkea bukatu ondorenean Natur Gas-ren globa aerostatikoa.

20:00. Sardina jana Begiristain sagardotegian.

23:00. Ainaro eta Mirenekin dantza saioa.

ABUZTUAK 12, LARUNBATA

Gazte eta haurren eguna

11:00. Buruhandiak.

Ondoren. Haurrentzako krossa.

Ondoren. Herriko haurren erakusketa.

12:00. Altxorraren bila. Ondoren bakoitzak bere bokadiloarekin bazkaria parkean. Bazkaldu ondoren umeentzako jolasak eta txokolatada.

12:00. Hitzaldia kirolegiko gimnasioan.

14:00. Sagardo desberdinekin

eta bertsolariekin bazkaria herriko plazan.

18:00. Herri kirolak, herrikoen artean. Ondoren, topaketa plazan. Gero, triki-poteoa herrian zehar.

11:00. Kontzertua: Soziedad Alkoholika + Nuke + talde sorpresa, herriko plazan.

ABUZTUAK 13, IGANDEA

09:00-11:00. Plater jaurtiketa (entrenamendua).

11:15. Meza.

Ondoren. Herriko haurren eskutik dantza saioa.

11:00-13:00. Plater jaurtiketa lstringorri baserrian.

18:00. Pilota partidak kirolegian.

Ondoren. Erromeria kalean zehar, Larrume eta Koatei trikitilariarekin.

22:30. Bertso saioa, Egaña, Lujanbio, Arzallus eta Kolinarekin.

23:00. Larrume eta Koatei trikitilariak.

IBARRA

ABUZTUAK 21, IGANDEA

10:00. Euskadiko VIII. Piperraren azoka, 14:00ak arte.

12:30. Euskal Herriko Piperraren I. Lehiaketa gastronomikoa.

ABUZTUAK 22, ASTELEHENA

21:00. Euskal Presoak Euskal Herrira-ren aldeko herri afaria San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 23, ASTEARTEA

11:30. Hamaiketako, San Bartolome plazan.

11:45. Haur eta gaztekoen koadrilak plazan elkartuko dira

12:00. Jaien hasiera, suziariaren jaurtiketarekin.

Ondoren erraldoi eta buruhandien irteera. Koadrilen kalejira txarangarekin eta Giroarte dultzaina taldearekin.

14:30. Haurren eta gaztekoen koadrilen bazkaria.

16:00. Karaokea San Bartolome plazan.

18:30. Haurrentzako apar-jaiak, San Bartolome plazan.

19:00. San Bartolome bezperako salbea eta kanpaiak.

22:30. Danborrada nagusia Ori txarangak alaiturik.

23:30. J&K taldea San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 24, ASTEAZKENA

09:00. Diana.

10:30. Meza nagusia eta Parrokiaren dorreko obra-lanen inaugurazioa San Bartolome elizan.

11:30. Haurren danborrada, Koxkola txarangak alaiturik.

12:00. Piperrak eta Tomateak San Bartolome plazan.

13:00. Emeterio Arrese XVII. Literatur Lehiaketaren eta San Bartolome bozeto lehiaketaren sari banaketa, San Bartolome plazan.

19:30. Kale-antzerkia

20:00. Bertsolarien emanaldia: Egaña, Lujanbio, Arzallus eta Silveirarekin, Arrese plazan.

22:30. Alurr dantza taldearen jaialdia Emeterio Arrese parkean. Euria eginez gero, Belabieta Kirolegian.

00:00. Laiotz taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 25, OSTEGUNA.

09:00. Diana.

11:00. Gorriti eta bere animaliak, Emeterio Arrese parkean.

11:30. Erretiratuentzako hamaiketako Bizi-Nahi Elkartearen.

13:00. Herri kirolen erakustaldia, San Bartolome plazan.

16:00. Haurrentzako jokoak, Emeterio Arrese parkean.

18:30. Helduentzako Dantza-Solte Txapelketa, San Bartolome plazan.

19:30. Kabun talde kataluniarren emanaldia herriko kaleetan zehar.

23:30. Irailerako 6 taldearen emanaldia, San Bartolome plazan goizaldera arte.

ABUZTUAK 26, OSTIRALA

09:00. Diana.

11:30. Frantsesak Ibarra antzerki obra herriko kaleetan zehar.

14:30. Txekor-jatea Uzturpe ikastolan.

16:30. Haurrentzat herrikirolak, San Bartolome plazan.

19:30. Sokadantza San Bartolome plazan.

20:00. Kabun talde kataluniarren musika emanaldia herriko kaleetan zehar.

23:30. Imuntzo eta Beloki taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 27, LARUNBATA

09:00. Diana.

10:30. Haurrentzako III. Eskalada Txapelketa Belabieta kirolegian.

11:30. Toka eta Bola txapelketa Emeterio Arrese parkean.

11:30. Bat bateko xake partidak Emeterio Arrese parkean.

13:00. Sokatira taldekoen sokatira lehia, San Bartolome plazan.

15:00. III. Eskalada Txapelketa Belabieta kirolegian,

17:00. Pilota partidak Belabieta pilotalekuan.

19:30. Jotak, Emeterio Arrese parkean.

23:00. Real Azteca Mariatxi taldearen emanaldia, Emeterio Arrese plazan.

23:30. Triki Ta Ke taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 28, IGANDEA

09:00. Diana.

09:30. Gazteentzako txirindulari-lasterketa, XXIV. San Bartolome Saria.

12:00. San Bartolome plazan elkartuko dira koadrilak.

14:30. Koadrilen zikiro-jatea Uzturpe ikastolan.

18:30. Perkusio taldearen kalejira.

00:00. Osasun etxetik San Bartolome plazaraino piperra erretzeko prozesioa, eta ondoren piperra erreko da.

01:00. Patxi eta Kompania taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

BIDANIA

ABUZTUAK 23, ASTEAZKENA

12:00. Suziriak eta ezkirlak.

Ondoren. Txikiteo herriko trikitilariarekin alaiturik.

17:00. Zezen txikiak.

20:00. Salbea.

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Izer eta Alabier.

ABUZTUAK 24, OSTEGUNA

11:00. Meza nagusia.

Ondoren. Herriko dantzariak, helduentzako hamaiketako eta Goiz guztian zehar ganadu feria.

18:00. Herriko gazteen pilota partidak.

22:30. Idi proba.

Ondoren. Etxabe anaiek.

ABUZTUAK 25, OSTIRALA

11:00. Meza nagusia.

Ondoren. Bola eta toka eta helduentzako hamaiketako Sayaz elkartearen.

17:00. Ume jolasak.

22:00. Pilota partidak.

Ondoren. Laiotz.

ABUZTUAK 26, LARUNBATA.

Egun guztian zehar usakume tiraketa.

22:30. Bertsolariak.

Ondoren. Kupela taldea.

ABUZTUAK 27, IGANDEA

11:00. Meza nagusia.

Ondoren. XX. Herri Krossa.

16:30. Zaldi karrera (eguraldi txarra baldin bada ez da egingo).

Ondoren. Herri kirolak.

22:00. Jaietako amaiera emateko Zirika taldea.

GIZARTEA ▶

Donejakue bideko 40 erromes gurean

San Adriango tunelaren bideko bigarren jardunaldia dute gaurkoa; harrera berezia egingo diete udal ordezkariak

NOELIA LATABURU

Arabako, Gipuzkoako eta Errioxako (Espainia) Donejakue bideko Lagunen elkarteak «barneko euskal bidea suspertzeko helburuz», bide hau zeharkatuko duen lehen erromesaldia antolatuko dute. San Adriango tunelaren bidea bezala ezagutzen den ibilbideari atzo ekin zitoten 40 erromesek, Irundik Hernanira. 23 kilometro hauek ibili ostean, gaur Hernanitik Tolosara abiatuko dira, eskualdeko hainbat herri zeharkatu ostean. Eguerdian dira iristekoak eta Udalak harrera berezia egingo die.



Apirilean inauguratu zuten Trianguloko seinalea. N. LATABURU

Guztira 9 jardunaldi burutuko dituzte eta abuztuaren 4an iritsiko dira Ozkabartera. Adin guztietakoek osatu dute talde txoa. Beraien artean Villabona-ko Unai Iparragirre 10 urteko gaztetxo dago, bere amona Maria Jose Labourdique-rekin batera. Bihar, 07:30ean abiatuko dira Beasain aldera. Udaletik etapa egitera animatu nahi dituzte tolosarrak.

«Datu baikorrak»

Garapen, Turismo eta Enplegu zinegotzi Josemi Gomezek Tolosaldea Tour bulegotik igarotako erromesen datu «argi eta baikorren» berri eman du. Hala, iragan maitzean bulegoan zerbitzua ireki zutenetik, guztira 50 kreditzial banatu dituzte. Bestetik, 100 erromes inguruk jarri dute zigilua euren kreditzialetan Tolosako bulegoan. Eta, Zuloaga-Txiki aterpean 20 pelegriнок egin dute lo. «Aipagarria da, halaber, Donejakue bideari buruzko informazioa eskatzen dutenen kopurua».

EGITARAUA ▶

Donejakue bideko 40 erromesen bigarren jardunaldia izango da Tolosakoa, ekitaldiz beteta:

GAUR

13:00 - 15:00. Erromesak iritsiko dira. Tolosaldea Tour bulegoan kreditzialei ziligua jarriko dizkiete.

13:30. Udaleteko pleno aretoan harrera ofiziala egingo diete. Bertan izango dira Jokin Bildarratz alkatea eta Josemi Gomez Garapen, Turismo eta Enplegu zinegotzia. Ondoren, mokadua izango da Insalusen, Adunako Dioni fruten eta Usabal sagardotegiaren babesarekin. Azken honek afaria eta gosaria ere eskainiko ditu.

18:00. Erromesei zuzendutako bisita egingo dute Tolosatik, Tolosaldea Tour bulegoak antolatuta.

22.30. Usabal kiroldegian egingo dute lo.

ANDER LIZASO ▶ TOLOSALDEA TOUR BULEGOKO LANGILEA

«Jendez gainezka dagoen Frantziako bideari irtenbidea eman nahi diogu barneko bidearekin»

Donejakue bideko informazioa topatzeko Tolosaldea Tour-era jotzen du erromesak. Bertan lanean Ander Lizaso (Tolosa, 1981) dago. Bere lanaren gainean eta Donejakue bideak bulegoan izan duen eraginaren gainean aritu da solasean tolosarra TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN.

Lan handia izan al duzue Donejakue bidearen harira?

Bai, Tolosaldea Tour turismo bulegoa da eta gure lana, hain zuzen, kanpotarrei zerbitzua eskaintzea da, eskualdeko informazioa emanez. Orain, donejakue bidearekin, barneko ibilbidearen berri ematen dugu, eta kreditzialak ere banatzen ditugu.

Datuen zer balorazio egiten duzue?

Oso positiboa izan da. Maia-

ztetik aurretik ez zegoen aukera ematen dugulako orain.

Zer motatako jendeak egiten du gehienbat bidea?

Era eta adin guztietako jendea hurbiltzen da, jubilatua zein gazteak. Gehienak eskualdekoak izaten dira; atzerritarren artean, berriz, bizikletaz egitea erabakitzen dute gehientsuenek bidea; izan ere garraio hau aukeratzen dutenentzat

egokiagoa da barneko bidea, kostakoa baino.

Nola erakarri daiteke jendea kostako bidea utzi eta bestea egin dezan?

Frantziako bidea da famatuenena Donejakue bidea egin nahi dutenentzat eta gehienek hau aukeratzen dute; baina jendez gainezka dago. Pelegrinoari irtenbide bat eman nahi diogu barneko bidearekin. Gainera,

bidea zaharragoa da eta Gaztelako eremura igarotzeko bidea naturala da.

Zer aurki dezake erromesak, bada, bide honetan?

San Adriango tunelaren barneko bideko deigarriena para-jeak direla esango nuke. Gipuzkoa eta Araba osoa zeharkatzen ditu tunelak eta bertan paisaia zoragarriak aurki daitezke. Jendea animatuko nuke hau egitera.

Jende gehiago espero al duzue abuztuaren?

Ez dakit. Orain arteko datuak oso onak izan dira datorren hilean ikusiko dugu. ◀

Uda honetan

ekhipoliki



SONY ERICSSON L230



LG Prada



SAMSUNG E250

9

-ren truke



San Francisco, 19
Tolosa
☎ 943 698 126



ALKIZA ▶ NATURA

Putreen ustezko eraso aazienda bati

Animaliak egoera susmagarrian azaldu dira etxe inguruan



Putreek etxabere bati egindako ustezko erasoaren ondoriozko irudi bat. HITZA

ERREDAKZIOA

Alkizako Arpide Goikoa base-
rriko aazienda bi eraso jasan
ditu bi hilabetetan: badirudi,
nagusien ustez, putreak izan
direla. Hain zuzen ere, Jose Luis
Beobidek esan duen bezala,
«aste bateko arkumeak asko-
tan geldi egoten dira... Hezu-
rrak finak dituztenez, horiek
ere jan zituzten».

Erasoen inguruan, Beobidek
«erasotuak izan diren jakitea
zaila» dela dio, baina «badirudi
erdi hilik edo ezinean daude-
nean, putreek erasotu egiten
dutela esan nahi duela. Guar-
dien iritzi, ez da horrela, bai-
na...».

Behia ekainean erasotu zu-
ten. Ume egiteko zegoen. La-
rrean izaten dira, eta bi egun ez
zuela ikusi. Bila joan, eta hilik
aurkitu zuen, erdi janda. Gero,
txahala azaldu zen bizirik: «Ba-
dirudi, umea egin ondoren, ezi-
nean-edo egongo zela, eta pu-
trek horretaz baliatu ziren».

Guardiek azter dezakete au-
topsiaren bidez bizirik zegoen-
ean erasotu ote zuten ikuste-
ko. Horrela bada, indemniza-
zioa jasotzen du baserritarrak.
Autopsiak bestelakoa esaten
badu, baserritarrak ordaindu
behar dituzte. «Baserritarren
alde sekula ez dira jar-
tzen. Esanez gero putreak hilda
daudela baserri ondoan, segi-
tuan etorriko ziren, baina behia
hilda badago, ez dira etortzen».

Ardiaren kasuan, goiz bate-
an Beobidek zaratak entzun zi-
tuen. Atera eta 50 putre base-
rritik 100 metrotera ikusi zi-
tuen ardia jaten, haien artean
borrokan. «Ez dakit erasotua
izan zen, baina aurreko iluntze-
an ardiak ondo zeuden».

«Behi eroen ondoren, ez dira
eramaten putreen janlekueta-
ra, erre egiten baitira. Putreek
janaria behar dute eta horrek
bultzatu ditu erasotzera», sala-
tu du.

Indemnizazioak

Beobidek ez dio indemnizazioa
eskatuko Diputazioari. Hala
ere, inork ez duela ezer ordain-
duko dio: «Guardak ez daude
baserritarren alde. Esaten dute
putreek mendiak garbitzen di-
tuztela, eta ez dituztela bizirik
dauden animaliak erasotzen».
Etsita dago Alkizako baserrita-
rra, Aldundiaren aldetik ez bai-
tu ikusten laguntzarik. Udalera
joatea besterik ez zaio falta.

PILOTA ▶

Joxean Tolosa Pilota Txapelketan onenak

III. Transernio Pilota Txapelketa ere Adunan
jokatuko dute gaur, 17:30etik aurrera



Zazpi-iturriko jokalarit bat pilotari itxaroten. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Amezketako pilotalekuan pi-
lotaririk onenariakoak izan-
go dira, txapelketari honela
bizitasun gehiago emateko.
Kategoria guztietan izango
dira 8 onenak.

Gaur, 21:00etan, Epelde eta
Bolinaga izango dira, ondoren
Jauregi eta Azpitarte gazteak,
eta azkenik Bengoetxea eta
Landiribar nagusiak.

Larunbatean, bihar, 16:00-
etan, Madariaga-Gaztañaga,
Legarreta-Gerrero, eta Iraola-
Iruureta ariko dira. Gauean,
22:00etan, Galarza-Esnaola,
Otxandorena-Nuñez, eta Ola-
zabal-Zelaia.

Hurrengo partidak abuztu-
aren 4, 5, 11 eta 12an izango

dira. Final-laurdenak abuz-
tuaren 16, 17, 18 eta 19an. Irail-
aren 2an, aldiz, finalerdia izango
dira Amezketan.

III. Transernio Txapelketa

Aurreko astean Transernio
Txapelketa jokatu zen Adu-
nan. Benjaminak: Andoain 16,
Amezketan 15; Villabona 12,
Anoeta 16; Irisarri-Elduaian
16, Lizardi-Iraola 10; Otaegi-
Irisarri 15, Zubiaurre-Goena-
txo 16. Eta alebinetan, Añorga
16, Larraul 5, Kadeteetan, Er-
niope 22, Azpeitia B 10; Azpei-
tia A 22, Ordizia 3; Aduna 22,
Andoain 15; Amezketan 22,
Añorga 17.

Gaur, 17:30etik aurrera,
partidak izango dira Adunan.

KM
Kulturunea

Kaldu Mitxelena Kulturunea
Lindaketa kalea 9 • 20006 DEFRANSTIA
Tel.: 943 112 28 93
programazioa@kizurkua.net
www.kizurkua.net/kultura

ERAKUSKETAK

Alfredo Bikondoa
Ganbaran
Ekainak 28 - Abuztuak 26

ONDUTEGIA
asteartetik larunbatean:
10:30-14:00 / 16:00-20:30
astelehen, igande eta jaierguztaren itzala
Bisitak gidatuta taldeentzat:
Tel. 943 112 756 / 667 346 025

LIZARBI
Kutxa, mahai, sarti etak.
Altxariak - Zurgintza onakorra
Taldekoak eta Ederak berrikuntza
Don Eusebio sarea
Tel. Fax: 943 631 943 - TOLOSIA

Preso eta iheslarien aldeko jantokia
Villabonan jaietan
Berdura plazan

Uztailaren 24tik 31ra
20:00etatik 24:00etara

Irurako Udala
IRAGARKIA

Irurako Udaleko Osoko Bilkurak, 2006ko
uztailaren 4eko batzaraldian erabaki
zuen, hasierako izaerarekin onartzea,
Irurako hirigintzako plangintzaren arau
subsidiarioak berriz aztertzeke lanak.

Ondorioz, jendaurreko informaziorako
gai ipini dira Jan horiek, 2006ko
uztailaren 22tik irailaren 21era
bitartean, interesatuak agiriari aztertu
eta egokiak irizutako alegazioak aurkeztu
ditzaten.

Espedientea udaleko idazkaritza/kontu-
hartzaitzetan eskatu daiteke
astelehenean ostiraleran 9:00tik 14:00ora,
Iruran, 2006ko uztailaren 24an.
ALKATEA

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Manu Azkarateri

2006ko uztailearen 7ko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN Manu Azkaratek Belauntzako alkateari zuzendutako idatzia argitaratu zen. Manu Azkarate: zure idatzari lerdea dario, zure adierazpen guztie bezala. Berriz ere irain sorta jaurtitzan diguzu (*lapurra, makarra, faxista, kaziak, ustelak, herriko jaun eta jabe, miserietan murgilduta...*) eta berriro zure gizatasunik eza eta arrazoi falta agerian geratzen dira. Aska dezagun zure idatzi korapilotsu hori:

1. HITZAK, 2006ko ekainaren 30ean, nik Belauntzako Batasunari eta Sustraiak-i (Udal taldea) zuzendutako idatzia argitaratu zen. Idatzi hortan adierazten nuen Belauntzako Batasunak eta Sustraiak Udal taldeek festa alternatiboak antolatuz zuzentzea sanjoanetan Belauntzan (300 biztanleko herria), hori herria zaitzeko zela, eta ez batzeko (Batasuna gora eta Batasuna behera eta justu herriaren batasunaren kontrako erabakia: aparteko festa antolatuz herri txiki batean, giro txarra sortuz) eta erantzuteko eskatzen nien.

2. Nire idatzia Batasuna eta Belauntzako Sustraiak taldeari zuzenduta dago eta Belauntzako auzotarra ez den (ez dago

erroldatuta Belauntzan) Manu Azkaratek erantzuten du.

3. Harro gaude antolatutako San Joan jaietaz, gure helburu nagusia herria biltzea (herriar zintzo eta normalak) izan delako eta hori lortu dugulako.

5. Adierazten duzu herriko festa herriarren sosekin ordainduta egin direla. Ez al da egiten horrela herri guztietan, ala Batasunak agintzen duen herrietan bere poltsikotik jarritzen dute dirua alkateek eta zinegotziek?

6. Adierazten duzu jaiak antolatzeko bilerengatik dirua kobratu dugula: gezurretan ari zara berriro, Manu Azkarate. Guk ez dugu aparteko dirurik kobratu jaiak antolatzeagatik. Zure emaztea den Belauntzako Sustraiak taldeko zinegotzi Itziar Arratibel Imazek zergatik kobratu zuen Udaletik alkate funtzioetan egondako garaian?

7. Adierazten duzu Belauntzako alkateza lapurtu genuela (zenbatgarren aldiz?). Berriz ere gezurretan ari zara, Manu Azkarate: Belauntzako alkate aukeraketari buruz HITZAN 2006ko apirilaren 11n eta Batasuneko kideei zuzendutako idatzia irekian (oraindik erantzun gabea) argi eta garbi azaldu nuen Belauntzako alkate hautaketaren prozesu demo-

kratikoa: 4 boto nire alde eta 3 Itziar Arratibel Imazen alde. Zer nahi zenuen? Zure emaztea Belauntzako alkate izatea? Eta ez bada atera, zergatik beti gai hau, burugogorkeria hau? Zergatik jarrera *estalinista-faxista* antidemokratiko hau? Erantzun mesedez Belauntzako Batasuneko kideok, gai honi kiratsa dario eta. Erantzun mesedez Tolosaldeko Batasuneko buruok, Belauntzan bakea behar dugu eta. Zuk badakizu, Manu Azkarate jauna, zergatik eta zertarako hautatu ninduten Belauntzako alkate. Maiuskulaz erantzun gogoz: Iñaki Basasoro Tolosa abokatua (zuen *aholkularia*) herriatik bidaltzeko.

8. Lotsarik ez daukazu Carmen Olano-Luis Etxebesteren biltegiaren erreketak aipatzera koan. 600.000 euroko kaltea izan du familia horrek eta arinkeriak hitz egiteko eskubidea osoa daukazu. Lotsagarria zuen erantzuna, Manu Azkarate, lehen eta orain. Lehen, zuen burua zurrutu eta ekintza horiek kondenatu zituzten alkateen eta zinegotzien kontra jarri zinetelako, kontra-konzentrazioa deituz (orduan ere, Belauntzako 8 eta kanpokoak 20). Orain, berriz ere, itxi ez den zaurian hatza sartzen duzulako ahalik eta gehien gaiztotzeko.

9. Eraso kontuetan, Manu Azkarate, zuek zarete txapeldun. Zuen erasoan azken adibidea (aurtengo sanjoanetan gertatutakoa): zuen *klan*-eko batek *lapurre, lapurre, zipaio, zipaio* esan zion herriak aukeratu gure taldeko zinegotziari (zuek dena libre, iraindu, mehatxatu, jo...).

10. Manu Azkarate jauna, adierazten duzu bota egin ninduzuela ezker abertzaletik ustelkeria ez duzelako onartzen. Hori ez da horrela, Manu Azkarate; ezker abertzale taldekoa naiz eta hil arte izango naiz ezker abertzalekoa. Noski, ez naiz zu ordezkaritza zaren *klan estalinista-faxista* hortakoa. Manu Azkarate jauna, zuek erabakitzen al duzue zein den ezkerrekoa eta zein den abertzalea? Non lortu duzu erabakitze ahalmena? Ni eta nire taldekoak pozik eta harro gaude *klan estalinista-faxista* baten parte-hartzaile ez izateaz.

11. Zure idatzian, Manu Azkarate Ramos jauna, Marbella txikia aipatzen duzu («ustelkeria» ez duzuela onartzen eta Tolosaldean ez duzuela «Marbella txirik nahik»). Emango dizkizut Belauntzan gertatu diren usteko *ustelkeriaren* (Belauntza=Marbella txiki) adibide batzuk: Iñaki Basasoro Belauntzako

Udaleko idazkari ohiak, 29.055 euro kobratu ordez, 65.962,54 euroko (10.975.243,18 pezeta) diru kopurua jaso zuen Belauntzako Udaletik kalte-ordain gisa, hau da, 36.907,54 euro (6.140.897,95 pezeta) gehiago —bidezko kaleratzea zena, bidegabe bihurtu ondoren—.

Dirutza kobratu kalte-ordain ketagatik eta berriz ere Iñaki Basasoro Tolosa abokatu-*aholkulari famatu* hori kontratatzen duzue: 1.502,53 euro (250.000 pezeta hilean gehi BEZ) Belauntzako udaletxean 5 ordu astero egoteagatik (guk bidali arte).

Iñaki Basasoro Tolosak 601.012,10 euroko (100 milioi pezeta) kalte-ordaina eskatu zion Belauntzako Udalarik kalte moralengatik, baina epailek atzera bota zuen eskaera hori. Kobratu izan balu, belauntzaren artean banatuko zuen diruzta hori, ezta? Ziur baietz.

Adibide gehiago daude, Manu Azkarate jauna. Hurrengoan, adierazitokoen azalpen zehatza emango dugu eta beste batzuk aipatuko ditugu (liburu bat idatzeko adinako *ustelkeria adibideak* daude; beharbada, Iñaki Basasoro Tolosa abokatua laguntzeko prest egongo da, adibidez, diru ekarpen bat eginez).

EDURNE ARBELEGI

▶ BELAUNTZAKO ALKATEA

GAZTELU ▶ EUSKAL HERRIKO SEGA TXAPELKETA

Goikoetxea, Aranalde eta Gabirondo txapela lortzeko lehian

Etzi lehiatuko dira, Otxandion, 3 gazteluarrak Lapazaran bizkaitarrarekin batera, Sega Txapelketako finalean

IÑIGO TERRADILLOS

Igande honetan erabakiko da Euskal Herriko Sega Txapelketa, finala orduan izango baita Otxandioko Olaeta auzoan,

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

12:00etatik aurrera. Eskualdeko segalariak ordezkaritza zabaldua izango du txapelketako egun handienak, 4 finalistetatik 3 bertakoak baitira. Hirurak, gainera, gazteluarrak dira: Andoni Goikoetxea, Joxe Gabirondo eta Mikel Aranalde. Hauekin batera, Jon Lapazaran bizkaitarra lehiatuko da Euskal Herriko txapelaren bila.

Finalerdian ez bezala, lau segalariak batera ariko dira ordubeteko saioan. Hala, denbora horretan belar kilo gehien moztea lortzen duenak irabaziko du Euskal Herriko Sega Txapelketa. Kontuan hartu behar da orain arteko saioak ordu erdikoak izan direla, eta finala,

berriz, 60 minutuko izango dela, eta honek gauzak aldatzake. Bestalde, igandeko finalerdien ostean, «Lapazarenekin egin zuen lana ikusita», bera jotzen dute adituek txapelantzeko faborito nagusi. Bizkaitarrak 941 kilo bilduta multzoko lehena amaitu zuen, eta bere atzetik geratu zen Aranalde. Beste multzoan Goikoetxea geratu zen lehena, eta Gabirondo bigarrena.

Aipatu, hasiera batean, finala Mañarian egitekoa zela, baina azkenean, lehortea delako, belar faltagatik, tokiz aldatu eta Otxandioko Olaeta auzoan egitea erabaki dute antolatzailuek.

HERRI KIROLAK ▶

Etxeberria gazteluarra irabazle, ingudearekin

Argaia zizurkildarra 4. geratu da lasto altzatzean eta Roteta alkizarra 3. trontzan



Etxeberria ingudearekin eta Roteta trontzan, herenegun. HITZA

ERREDAKZIOA

Herenegun Astigarragan, herri kirol emanaldien baitan, Gipuzkoako Ingude Txapelketa, Lasto Altzatze Txapelketa eta Trontzalari Txapelketa jokatu zituzten. Ingude Txapelketan, Andres Etxeberria izan zen txapelduna, 85 jasoaldi eginez 18 kiloko ingudeari, minutu eta 30 segundotan.

Lasto Altzatze Txapelketan Pello Argaia laugarren postua lortu zuen; 2 minututan 8 jasoaldi egin zizkion zizurkildarrak 7 metroara 45 kiloko pardelari. Gotzon Arrieta mutrikuarra izan zen lehena 19 jasoaldirekin. Trontzalari Txapelketan, berriz, Aitor Roteta alkizarrak eta Andoni Rezabal aiarrak osaturiko bikoteak hirugarren amaitu zuen.

POLITIKA ▶

Gaurko elkarretaratzeez gain, udarokoetara ere deitu dute

Errepide bazterretan eta hondartzetan bilduko dira Etxeraten deialdiari jarraituz

ERREDAKZIOA

Euskal preso politiko eta iheslarien senide eta lagunak elkarrekin, Etxerat-ek, gaur-biharretarako eta heldu den hilaren 6rako antolatu dituen elkarretaratzeetan parte hartzeko deia egin du, aste honetan egindako agerraldian.

Elkarteak adierazi duenez, «aspaldian sarri ari da hitz egiten Euskal Herriak bi estatuekin duen gatazka politikoren konponbideaz, baina gure senide eta lagunak fisikoki, psikikoki nahiz politikoki suntsitu asmoz, bi estatuek oraindik indarrean dituzte salbuespen



Errepide bazterrean. I. ETXEBESTE

neurriak; heriotza eta samina eragin eta gatazka, ez konponbidea, elikatzen dituzten neu-

rriak», azaldu du euskal preso politikoen nahiz iheslarien aurkako zigorrak eta jazarpenek ez dutela etenik adieraziz. «Hori guztia dela-eta errebeltatu egiten gara», baieztatu du. Hala, herritar eta eragile guztiei herriz herri antolatuta dauden mobilizazioetan parte hartzeko deia egin die, «bi estatuetako gobernuari biolentzia horrekin buka dezaten presio egiteko».

Horrela, Tolosaldean eta Leitzaldean deialdi horri utsita, gaur hilabeteko azken ostirale-tako elkarretaratzeak antolatu dituzte ohiko lekuetan. 19:30ean elkartuko dira Alegian,

Amezketan, Anoetan, Ibarran eta Tolosan. 20:00etan, berriz, Adunan, Asteasun, Ikaztegi-tan, Leitzan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkilen.

Bestalde, biharko errepideetako elkarretaratzei dagokienez, Tolosaldean, Santa Luzian, Santa Klaran eta Amarotzeko biribilunean elkartuko dira, 11:45ean.

Abuztuaren 6an Etxerategi Euskal Herriko hondartzetan egingen dituen elkarretaratzei dagokienez, berriz, Donostiara joateko deia egin dute Tolosaldean: Kontxako erlojuaren parean, 11:45ean dute hitzordua eginga.

LEITZA ▶

Abuztuan, festez gain, bestelako ekitaldiak ere

Torra elkartea ireki zela 12. urteurreneko festa hilaren 5ean egingen dute, adibidez

ERREDAKZIOA

Abuztuan santiburtzio festak izaten dira nagusi Leitzan. Festa egun horietan, urteroko bestelako ekitaldiak egingen dituzte aurten ere; baita Atekabeltz Gaztetxean egiteko asmoa omen dituzten kontzertuak ere erantsiko zaizkie festei. Ondorengo hau da egitaraua.

ABUZTUAK 5, TORREAREN XII. URTEURREN EGUNA

19:30. Manifestazioa plaza-tik aterata, *Euskal Herriak autedeterminazioa* leloarekin.

Ondoren. Ekitaldia plazan, Fernando Barrena hizlari dela.

21:30. Afaria, Torrean: paela, txekor-saiheskia letxuarekin, limoi sorbetea, kafea eta kopa. Txartelak salgai, hilaren 3a arte, 18 euro eta 4 euroko laguntzaren truke.

ABUZTUAK 6

19:30. Atekabeltz Gaztetxean, gaur egungo musika klasiko-konkertzua, entzule guztiarentzat, bereziki umeentzat: saxofoiak, marimba, txistu.

ABUZTUAK 13

20:30. Plazatik aterata kalejira herrian barrena, euskal preso politikoen alde.

Ondoren. Herri afaria Karra-pen.

OHARRA

Kontzertuak. Atekabeltz gaztetxean, festetan ere kontzertuak antolatuko dituzte.

MIKEL OLAZABAL ▶ PILOTARIA

«Geldirik egotea oso gogorra izan da, baina ongi sendatu arte ez nuen hasi nahi»

Olazabal aresoarra larunbat honetan itzuliko da kantxetara, ia 8 hilabeteren ondoren

J. ASTIBIA

Mikel Olazabal pilotari aresoarra ia zortzi hilabete egin ditu jendaurrean pilotan jokatu gabe, lehengo abenduan ezkerreko eskumuturreko eskafoidea hautsi zuenetik. Azken asteak prestaketekin aritu da. Ongi sendatu eta orain pilotalekuetara itzuliko da: bihar, Amezketan egingen du berragertzea. 22:00etan hasiko den pilotari jaialdian, hirugarren partidan, Lizartzako Zelaiaren aurka. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN** mintzatu da.

Pilotan hasteko gogotsu?

Bai, gogoekin nago jada. Denbora honetan denean lagunak jokoan ikusita, inbidia latzak pasa ditut, nik ezin jokatuta, geldirik egon beharrekin.

Nola zaude?

Fisikoki oso ongi nago. Hezura ere osatuta dago. Baina plazan eta, ezker eskumuturra bendatuta erabiltzen dut, oraindik ahula dagoelako.

Beldur pixka bat ere emanen du, ez?

Batez ere esku aldetik nuen beldurra entrenamenduetan; eskuek erantzuten ote zida-

ten kezka nuen; hainbeste denbora jokatu gabe egonda beraztu egiten baitira. Orain tako gehixeago jarrita nabil. Baina oraingoz ongi daukat.

Mingarrria da haustura hori?

Eskumuturreko hezur tiki bat —8 daude eta handiena, eskafoidea—, hautsi nuen 2005eko abenduaren 6an; 8an, eta 18an ere jokatu egin nuen: min ikaragarria hartzen nuen, baina ez nekien haustura zenik.

Zazpi hilabete eta erdi baino gehiago sendatzeko...

Bai, ongi sendatu arte ez nuen hasi nahi. Orain prest nago. ◀



J. ASTIBIA

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

Belen Agirre Alustiza
Atzo hil zen, 43 urte zituela.

Izeba jatorra gendun ta umorekoa nahiko genuke bagina haren parekoa, ogia bera baino bihotz hobekua, inori kalte asko egin gabekua, gure bihotzean dago harentzat lekua!

Aloña eta Bixente, Izaro eta Jose Angel, Idoia eta Iosu, Usa eta Gaizka, Eneko, Iñaki, Ione, Eneritz eta Idurre

oharra ▶ Etor zaitzete, gaur 19:00etan Bariko San Nikolas elizan (Orio) gorpua bertan dela egingo den hiletara. Gorpua Zarauzko beilategian dago.

ZARAUZ, 2006ko uztailaren 28an

hilberria ▶

Belen Agirre Alustiza

Itsas uhinekin dantzan mendu gailurretan hegan izan haize, izan kresal gero arte, lagun gero arte, Belen.

Goizeko kafeko lagunak

ZARAUZ, 2006ko uztailaren 28an



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Parrokiak urteroko erromesaldia antolatu du Arantzazuko santutegira abuztuaren 6an. Izen-ematea 943 65 40 72an.
Ikaztegieta. Festetako herri afarirako (abuztuak 10) txartelak eros daitezke Toki Alain, abuztuaren 4a arte.
Tolosa. XXXVIII Paleta Txapelketako 3. eta 4. postuak eta finala, Berazubiko pilotalekuan, 19:00etan.

JAIK

Villabona. Koadrila Eguna: 10:30ean, erraldioak, buruhandiak eta Tolosako dultzaineroak; 12:00etan, Potxin eta Patxin pailazoak; 14:30ean, koadrilen bazkaria; 20:00etan eta 23:30ean, Etxabe anaiak.

MUSIKA

Tolosa. Euskal Herriko Gazte Orkestrak eskainitako kontzertuak inauguratuko du Leidor berritua, 20:15ean.
Tolosa. Inaxio Deunaren kontzertua, Musika Bandak eskainia. 22:30ean, Plaza Berrian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Ollareaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 32. 112.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.
21:00-22:00. Gora Euscadi Txistulari.
22:00-23:00. Gau bero.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Ainhize Sagasti.

Gaur 2 urte. Amabon eta aitabon partetik zorionak!

Ez ahaztu kamera etxean!

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Irailean hasiko da IV. HITZA Argazki Lehiaketa, oporretan ateratako irudiekin; hasi zuenak prestatzen!

ERREDAKZIOA

Bai, iritsi da berriro hainbeste desiatutako unea: oporrak. Eta garai horretan batera, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN argazki lehiaketa. Aste Santuetan ateratako argazkiekin osatu zuen eskualdeko euskarazko egunkariak hirugarren edizioa, eta irailan ekingo dio laugarrenari. Lehiaketa honetarako, hortaz, ekainetik irailera bitarte edozein egunetan eta edonon ateratako irudiak izango dira balekoak.

Pixkanaka-pixkanaka jasotako argazkiak argitaratzen joango dira egunkarian. Kopuru mugatua izango da, baina; beraz, komeni da lehenbailehen irudiak bidaltzea, iritsitako ordena errespetatuko baita. Hori bai, www.tolosaldeko-hitza.info webgunean, irudietan atalean, argazki guzti-guztiak izango dira ikusgai. Eta den-denak lehiatuko dira sarien bila.

Sari bikainak

Oraindik zehaztu gabe badaude ere —irailaren hasieran iragarriko ditu HITZAK, bai egunkarian eta baita webgunean ere—, aurreko edizioetan bezala, sari bikainak banatuko ditu IV. HITZA Argazki Lehiaketak. Parte-hartzaile guztien artean, eskualdeko euskarazko egunkariak izendatutako epaimahaiak aukeratuko ditu zortzi argazki finalistak, eta egunkarian argitaratu. Une horretatik aurrera irakurleek izango duzue azken hitza. Hau da, gustu-koen duzuen irudia aukeratzeko



lazko lehiaketara bidalitako argazkia da hauxe, Norvegiar ateratakoa, Romdalsfjorden fiordoan. I. ZENDOIA

ko eta bozkatzeko aukera izango duzue, bai telefonoz bai Internetez. Irakurleen botoekin erabakiko da, beraz, irabazlea. Gainera, botoa ematen duzue nek ere jaso ahal izango duzue sariaren bat, zozketak egingo baitira.

Abuztuaren 1etik irailaren 1era oporrak hartuko ditu HITZAK, eta, beraz, iraila baino lehen ez dira lehiaketarako argazkiak bidali behar. Hori bai, zoazten lekura zoaztela, ez ahaztu kamera etxean!

hitza
Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN praktikak egin nahi?
Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioan lizentziaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua
Urritik abendura aritzeko lanaldi erdiz Kredituak baliozkotuko dira
Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen:
Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

EUSKAL JAIA BILLABONA 2006
Uztailak 29 Larunbata
18:00etan Sagasti dantxaketa proiektuaren aurkezpena
19:00etan ERROKARIA: Antziazaren Anaiak & Juan Mari Beltran
21:00etan Alai herrikoia plaza: Zikiro Itza
22:00etan ERROKARIA: Tapia eta Leharra
Garalko euskal jantziekin parte hartzen zaituztegu